

Donostian, Diputaziñon, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Oleaga, Mitxelena, Irigaray ta Arrue jaun euskaltzaiñak, eta Labayen, Alvarez Empananza, Etxaniz eta Irigoyen jaunak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Arrue jaunak diño Etxaide, Lojendio ta irurak Gobernadoreagana joan zireala "Loramendi"-ren omenez egingo direan jaiak direala-ta, eta oso ondo artu zituela.

Domingo Agirre novela-saria emoteko izendatu zan batzarrak erabagi au ekarri dau:

Donostiako Diputazio-jauregian bildurik, 1958-garren urteko "Domingo Agirre" novela-saria emateko izendatu zan batzarrekoak, ao batez erbaki dute:

Leenengo: *Araibar Zalduna* izeneko novelari ematea "Domingo Agirre" saria. Bere egillea Eusebio Erquiaga da.

Bigarren: Jakinerazi, sariketara etorri diran beste novelen artean badaudela bi —*Peru Leartzako* eta *Ithurraldea*— dituzten merezimendu dudarik gabekoengatik aipamen berezi baten irabazle egin diranak, eta batzarrekoak penaz ikusten dutela lan oriek sari gabe gelditzea, saria bakarra eta zatitu eziañ dalako.

Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute Donostian, 1959-gko. Maiatzaren ogetazazpian.

Firmatzaileak: Manuel Lecuona, Nazario Oleaga, Angel Irigaray eta Antonio Arrue.

Iztegi lanetarako eskeiñi dabe: Durangoko Ayuntamentuak milla peseta; Bermeokoak berreun eta berrogetaamar; Arrigorriagakoak eun; eta Banco Vizcaya-k iru milla. Eskerrak emon bekiez.

Irigoyen-ek diño zelan Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketea egiteko modu ona dagoen. Bizkaia bost alderditan zatitu da eta toki bakoitzean bertako bertsolariak txapelketa bat egingo da eta txapeldunak Bilbon Agustuaaren 30-ean egingo dan azken txapelketa nagusirako geldituko dira, igazko Bizkaiko txapelduna be sartzen dala. Gaiñera Euskal-kantak izenagaz bertso liburutxo bat argitaratu leiteke Euskaltzaindiaren ardurapean, erabagita dagoen Bizkaiko neska-mutillen sariketarako balioko dauena eta txapelketa oneitan saldu leitekeana. Oso ondo ikusten da guztia eta egin bedi.

Karta bat artu dau Euskaltzaindiak Ipar-Ameriketara "Western Basque Festival" prestetan ari direanengandik gauza batzuk eta eretxiak eskaturik jai orretarako.

Irigoyen-ek diño zelan eskatu daben guztiaz gaiñera zinta magnetofoniko batean bertsolarien agur bat eta beste euskal-kanta batzuk batu direan, eta ain zuzen be gauza areik zelan bialdu Bilbon dagoen Ipar-Ameriketako etxearen buruari eretxia eskatutorduan, arek Euskaltzaindiaren izenean norbaitek joan bear leukeala bertara erregutu eban. Castor Uriarte jaunak bere burua eskeiñi dau bere kontura joateko. Joan bedi Euskaltzaindiaren izenean eta Euskaltzainburuaren ordezt eta agur bero bat eroan bekie an bizi direan euskaldun guztieri.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*

I. M.<sup>a</sup> Etxaide